



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

BIZTANLERIA ATZERRITARRARI ETA ETXEBIZITZA BABESTUARI BURUZKO TXOSTENA



2014ko maiatza



2013AN ETXEBIZITZA BABESTUEN BIZTANLE ESKATZAILEEN % 24 ETA BIZTANLE ESLEIPENDUNEN % 10 ATZERRITARRAK ZIREN

1. Sarrera

Dokumentu honen helburua da **EAEko biztanleria atzerritarri eta etxebizitza babestuari** buruzko datu garrantzitsuenak modu laburtuan eskaintzea.

Hasteko, Etxebiden etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa izena emanda dauden atzerritarren kuantifikazioa eta karakterizazioa egin da; ondoren, EAEko etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunen kuantifikazioa eta karakterizazioa egin da, kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Ordezkaritzetan ikus-onetsitako salerosketa-kontratuak.



2. Etxebizitza babestuaren eskaria

1. taula Etxebiden izena emanda dauden eskatzaileen bilakaera nazionalitatearen arabera, 2005-2013


	Atzerritarrak	Espainiarrak	GUZTIRA
2005	6.425	109.624	116.049
2006	7.387	97.908	105.295
2007	8.981	102.657	111.638
2008	11.374	102.850	114.224
2009	13.895	101.824	115.719
2010	20.176	90.298	110.474
2011	24.548	84.537	109.085
2012	26.133	81.982	108.115
2013	25.640	79.871	105.511

Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

2013an **nazionalitate atzerritarreko 25.640 pertsona** zeuden erregistratuta Etxebiden¹ etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa, hau da, aipatutako erregistroan izena emandako pertsona guztien % 24.

Azken urtean behera egin du arinki eskatzaile atzerritarren kopuruak; gauza bera gertatu da nazionalitate espainoleko eskatzaileen artean.

1. grafikoa Etxebizitza babestuaren eskatzaile atzerritarrek Etxebiden izena emandako biztanleen guttizkoaren gainean duten pisuaren bilakaera



Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

¹ Horietako batzuk eskaera berean taldean izena ematen dute, eta beraz, nazionalitate atzerritarreko titularrak dituzten eskaeren kopurua 20.082 izan da 2013n



2. taula Etxebiden izena emandako atzerritarrek 2005-2013 aldian lurraldeka izan duten banaketaren bilakaera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Zehaztu gabe	GUZTIRA
2005	2.320	2.470	1.279	356	6.425
2006	2.616	2.906	1.514	351	7.387
2007	2.990	3.777	1.887	327	8.981
2008	3.528	4.927	2.496	423	11.374
2009	4.370	5.788	3.250	487	13.895
2010	5.029	9.912	4.692	543	20.176
2011	6.396	12.445	5.147	560	24.548
2012	6.753	13.272	5.605	503	26.133
2013	5.955	12.984	6.629	72	25.640


Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Etxebizitza babestuaren eskatzaile atzerritarren erdia (% 51) Bizkaian bizi da (12.984 pertsona), % 26 Gipuzkoan (6.629 titular) eta % 23 Araban.



Hala ere, ezin da ahaztu Araban izena emanda dauden biztanleen % 48 atzerritarrek direla; proportzio hori % 23 da Bizkaian eta % 19 Gipuzkoan.


2. grafikoa Etxebizitza babestuaren eskatzaile atzerritarrek Etxebiden izena emandako biztanleen guztizkoaren gainean duten pisuaren bilakaera lurralde historikoaren arabera




Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

2013an Etxebiden etxebizitza babestuaren eskaera-txostenen artetik 20.082tan titularretako batek, gutxienez, nazionalitate atzerritarra zuen, eta kopuru hori 2012koa baino baxuagoa da. Atzerritarrek egindako etxebizitza-eskaeren gehiengoa (% 90) alokairuko etxebizitza babestuen eskaerak dira.

3. grafikoa Etxebiden titular atzerritarra duten etxebizitza babestuetako eskaera-txostenen bilakaera, 2005-2013



4. grafikoa Etxebiden izena emandako biztanleek eskatzen dituzten etxebizitzaren edukitza-erregimena nazionalitatearen arabera, 2013



* Eskatzen diren etxebizitzak esatean, Etxebiden erregistratutako txostenen artean nazionalitate atzerritarreko titular bat duten txostenen bolumena ulertu behar da.

Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.




3. taula Eskatutako etxebizitzaren edukitza-erregimenaren bilakaera nazionalitatearen arabera, 2005-2013

	Atzerritarrak			Espainiarrak		
	Erosketako soilik	Alokairu soilik	Berdin da	Erosketako bakarrik	Alokairu soilik	Berdin da
2005	15,3	44,0	40,7	49,4	17,8	32,8
2006	11,0	50,8	38,2	44,4	21,4	34,2
2007	9,5	51,0	39,9	43,9	20,5	35,9
2008	9,4	49,1	41,6	43,2	20,0	36,8
2009	7,9	51,8	40,3	41,7	19,6	38,7
2010	4,1	67,7	28,1	35,2	23,4	41,4
2011	3,0	76,1	20,9	32,0	27,0	41,0
2012	2,1	82,1	15,8	28,3	31,7	40,1
2013	10,0	90,1	--	51,6	48,4	--

* 2013tik aurrera erosketako edo alokairu dira etxebizitza eskuratzeko erregimenak.


Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

5. grafikoa Etxebizitza babestuen eskatzaileen ezaugarri sozio-demografiko nagusiak nazionalitatearen arabera, 2013.



Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

6. grafikoa Etxebizitza babestuen eskatzaileen batez besteko diru-sarreraren maila nazionalitatearen arabera, 2013.



* Batez besteko diru-sarreraren maila kalkulatzeko ez da kontuan hartzen diru-sarrerarik ez duen biztanleria.

Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Biztanle atzerritarrek gehiago eskatzen dituzte alokairuko etxebizitza babestuak, baina eskatzaile espainolekin alderatuta, desberdintasunak ikus daitezke profila sozio-ekonomikoari dagokionez (Ikus 4. taula).

Biztanleria atzerritarren artean, txostenen % 59 familia-unitateek egindako etxebizitza-eskaerak dira. % 42 banakako eskaerak dira. Proporzio horrek gora egin du azken urteetan, baina nazionalitate espainoleko biztanleen banakako eskaera (% 75) baino baxuagoa da oraindik ere.

Nazionalitate atzerritarreko titularren erdia gizonak dira, eta emakumeak dira beste erdia, 39 urtekoa da batez besteko adina eta ez dago desberdintasun esanguratsurik nazionalitate espainoleko biztanleekin alderatuta.


Titular atzerritarren % 49 ezkontuta daude eta % 42 ezkongabeak dira. Nazionalitate espainoleko biztanleen artean ezkongabeak nagusitzen dira (% 72).

Diru-sarreraren mailetan ikus daitezke desberdintasun handienak. Banakako titular atzerritarren % 53k eta izena emanda dauden nazionalitate atzerritarreko familien % 28k ez du diru-sarrerarik; proportzio horiek askoz ere baxuagoak dira nazionalitate espainoleko biztanleen artean.

Biztanleria atzerritarren batez besteko diru-sarreraren maila dezente baxuagoa izan da 2013an. Batez beste titular atzerritarrek 10.066 euroko urteko diru-sarrerak dituzte eta familiaren guztizko diru-sarrerak 12.163 eurora iritsi dira, eta kopuru hori murriztuz joan da.

Bi kopuruak nazionalitate espainoleko biztanleen artean erregistratutakoak baino dezente baxuagoak dira, hain zuzen ere, 16.733 euroko batez besteko diru-sarrera pertsonalak eta 18.677 familiaren diru-

sarrerak dira kopuruak azken horien artean.



4. taula Etxebiden izena eman duten atzerritarren ezaugarri nagusien bilakaera, 2005-2013

	Atzerritarrak								2013	
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Atzerritar rak	Naziona l.
SEXUA										
▪ Gizonezkoa	48,6	47,9	47,4	47,2	47,7	48,1	49,3	50,7	50,1	49,7
▪ Emakumezkoa	51,4	52,1	52,6	52,8	52,3	51,9	50,7	49,3	49,9	50,3
ADINA										
▪ 18-24 urte	0,9	1,2	1,9	3,2	4,8	5,8	7,8	3,1	3,9	2,8
▪ 25-29 urte	7,8	8,9	10,5	12,6	15,3	16,6	18,7	13,8	14,3	18,6
▪ 30-34 urte	20,2	20,5	21,8	22,7	22,8	23,6	23,9	22,8	22,6	23,4
▪ 35-39 urte	23,7	24,3	23,8	22,9	21,9	21,2	19,6	22,6	23,0	17,8
▪ 40-49 urte	33,4	31,5	29,2	26,9	24,7	23,5	21,5	26,2	25,5	21,0
▪ 50-59 urte	10,9	10,6	10,0	9,2	8,2	7,3	6,6	8,8	8,2	9,8
▪ 60 urte eta gehiago	2,8	2,8	2,5	2,3	1,9	1,8	1,6	2,4	2,2	6,5
EGOERA ZIBILA										
▪ Ezkongabea	34,5	34,4	35,3	36,5	37,5	38,7	40,6	42,3	41,7	72,2
▪ Ezkondua	58,7	58,4	57,4	56,3	55,4	52,2	50,2	49,3	48,8	15,3
▪ Alarguna	1,0	0,9	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	1,1	1,7
▪ Banatua	2,9	2,9	2,4	2,1	1,9	1,6	1,5	1,6	1,7	3,2
▪ Dibortziatua	3,0	3,3	4,0	4,1	4,2	4,8	5,1	5,8	6,6	7,6
▪ Saikatu gabe						1,6	1,5			
BANAKAKO DIRU SARREREN BANAKETA										
▪ Diru-sarrerarik gabe	36,2	35,9	33,6	26,9	21,8	20,4	34,5	36,8	52,8	13,5
▪ 9000 € arte	32,8	29,6	29,4	27,5	32,0	32,6	23,3	27,0	24,1	21,1
▪ 9.001-25.000 €	30,3	33,2	35,9	43,9	44,5	44,0	39,7	34,5	21,3	48,9
▪ 25.001 € / 39.000 €	0,7	1,1	1,1	1,6	1,6	1,4	2,2	1,6	1,6	14,4
▪ 39.001 € / 50.000 €	0,0	0,1	0,0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	1,8
▪ > 50.000 €	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,5	0,2	0,0	0,4	0,4
Banakako batez besteko diru- sarrerak*	9.434	10.310	10.516	11.416	11.799	10.849	11.911	10.674	10.066	16.733
FAMILIEN DIRU SARREREN BANAKETA										
▪ Diru-sarrerarik gabe	3,8	7,5	7,7	3,1	6,9	5,9	15,6	12,4	28,2	9,3
▪ 9000 € arte	36,3	31,3	27,9	24,3	24,7	25,9	21,5	21,8	27,6	21,6
▪ 9.001-25.000 €	55,3	55,4	57,6	62,8	55,8	55,6	53,7	55,1	36,2	39,3
▪ 25.001 € / 39.000 €	4,4	5,5	6,4	8,9	11,1	9,0	7,6	8,8	6,7	20,1
▪ 39.001 € / 50.000 €	0,2	0,3	0,3	0,7	1,3	1,3	1,1	1,4	1,1	6,8
▪ > 50.000 €	0,0	0,1	0,0	0,1	0,2	2,3	0,5	0,5	0,3	2,9
Familiaren batez besteko diru- sarrerak*	11.873	12.684	13.364	14.699	16.360	14.373	14.749	13.176	12.163	18.677
TXOSTEN MOTA										
▪ Banakako eskaerak	26,8	27,9	28,8	28,4	30,0	23,9	27,2	39,3	41,5	74,6
▪ Sendiguneak	73,2	72,1	71,2	71,6	70,0	76,1	72,8	60,7	58,5	25,4
SENDIGUNEETAKO SEME/ALABA KOPURUA										
▪ Seme-alabarik gabe	27,1	24,7	23,9	25,1	25,9	21,9	21,3	22,2	18,4	34,2
▪ 1 seme-alaba	33,9	34,3	34,9	35,2	35,1	36,2	37,0	37,2	38,1	37,7
▪ 2 seme-alaba	23,9	25,0	25,2	23,9	23,5	25,4	25,5	25,0	26,0	20,7
▪ 3 seme-alaba edo gehiago	15,2	16,1	16,0	15,8	15,5	16,5	16,2	15,7	17,5	7,4

* Batez besteko diru-sarreraren maila kalkulatzeko ez da kontuan hartzen diru-sarrerarik ez duen biztanleria.

Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.



3. Etxebizitza babestuen esleipena

5. taula Etxebizitza babestuen esleipendunen bilakaera EAEn nazionalitatearen arabera. 2006-2013.

	Atzerritarrek	Espainiarrek	GUZTIRA
2006	166	5.176	5.342
2007	371	6.778	7.149
2008	299	6.685	6.984
2009	495	7.654	8.149
2010	619	6.307	6.926
2011	527	7.178	7.705
2012	691	6.624	7.315
2013	620	5.578	6.198


Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Ordezkaritzek ikus-onetsitako kontratuak.

Erreferentzia gisa Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzek **ikus-onetsitako erosketa-kontratuak edo alokairu-kontratuak** hartzen badira, **2013an 620** erosketa- edo alokairu-kontratu **ikus-onetsi ziren nazionalitate atzerritarreko pertsonekin**, hau da, **urte hartako kontratuen % 10.**

Bilakaerari erreparatuz, biztanle atzerritarren artean esleitzen diren etxebizitzak **pixkanaka ugaritzen** ari direla ikus daiteke.

Ikuspegi geografiko batetik desberdintasun garrantzitsuak ikus daitezke. Araban 2013an biztanle esleipendunen artean % 24 **nazionalitate atzerritarra** duen bitartean, % 2,6koa da proportzioa Bizkaian eta % 6koa Gipuzkoan.


7. grafikoa EAEko biztanleria atzerritar esleipendunaren portzentajearen bilakaera, 2006-2013



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Ordezkaritzek ikus-onetsitako kontratuak.

Atzerritar gehienak (% 83) alokairuko etxebizitza baten **esleipendun** dira eta % 17 bakarrik dira erosketa-erregimeneko etxebizitza baten esleipendun. Aitzitik, erosketa-erregimeneko etxebizitzaren kasuan % 72koa da portzentajea nazionalitate espainoleko biztanle esleipendunei dagokienez.

8. grafikoa Etxebizitza babestua eskuratzeko erregimenaren bilakaera nazionalitatearen arabera, 2006-2013



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Ordezkaritzek ikus-onetsitako kontratuak.



Etxebizitza babestuen **biztanleria esleipendunaren profil soziodemografikoari** erreparatuz, eta 2013ko datuen arabera, azpimarratzekoa da **emakumeak** direla etxebizitza babestu bat eskuratzen duten atzerritarren % 55, eta % 25 gizonak dira.

6. taula Etxebizitza babestuen biztanleria esleipendunaren ezaugarri nagusiak, 2013.

	Atzerritarrak	Espainolak
SEXUA		
▪ Emakumezkoa	55,4	50,2
▪ Gizonezkoa	44,6	48,3
ADINA		
▪ 18-24 urte	1,6	2,9
▪ 25-29 urte	12,3	23,4
▪ 30-34 urte	18,8	29,3
▪ 35-39 urte	23,2	16,7
▪ 40-49 urte	32,1	15,2
▪ 50-59 urte	9,3	6,2
▪ 60 urte edo gehiago	2,0	5,9
Familiaren tamaina		
▪ 1 pertsona	36,8	54,0
▪ 2 pertsona	35,1	38,8
▪ 3 pertsona	19,3	4,7
▪ 4 pertsona edo gehiago	8,8	2,45
Batez besteko tamaina	2,0	1,6
DIRU SARRERA PERTSONALAK		
▪ Diru-sarrerarik gabe	11,5	3,0
▪ 9000 € arte	15,4	10,0
▪ 9.001-25.000 €	65,4	61,6
▪ 25.001 € / 39.000 €	7,7	24,5
▪ 39.001 € / 50.000 €	0,0	1,0
Banakako batez besteko diru-sarrerak *	14.902	19.447

* Batez besteko diru-sarreraren maila kalkulatzeko ez da kontuan hartzen diru-sarrerarik ez duen biztanleria.
Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak.
Etxebizitza Ordezkaritzek ikus-onetsitako kontratuak.


Adinari dagokionez, **esleipendun atzerritarren % 32k 40-49 urte arteko adina dute.** Nazionalitate espainoleko biztanleei dagokienez, 30-34 urteko adin-tartean kokatu da gehiengoa. Bi kasuetan **41 urtekoa da batez besteko adina.**

Biztanleria atzerritarren batez besteko familia-tamaina (2 pertsona batez beste etxebizitza batean), esleipendun nazionalen artean lortutakoa baino altuagoa da (1,6 kide familiako).

Eta, amaitzeko, diru-sarreraren maila 14.902 eurokoa da, batez beste, nazionalitate atzerritarreko esleipendunen artean, eta batez besteko hori nazionalitate espainoleko pertsonena baino baxuagoa da (19.447 euro batez besteko pertsonako).



9. grafikoa Etxebizitza babestuen esleipendunaren batez besteko diru-sarreraren bilakaera nazionalitatearen arabera, 2006-2013.



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitza Ordezkaritzek ikus-onetsitako kontratuak.



4. Biztanle atzerritarren etxebizitza babestuaren eskariaren eta esleipenaren ebaluazioa eta ondorioak.

4.1. Ebaluazioa

- ✓ 2013an, 25.640 atzerritarrek eskatu zuten etxebizitza babestua Etxebideren bitartez; zerbitzu horretan **inskribatutako biztanleriaren % 24** atzerritarra zen. Aitzitik, 2013an egindako **esleipenetan** atzerriko biztanleriaren pisua **% 10ekoa** izan zen. Horrenbestez, ondoriozta daiteke etxebizitza babestuaren esleipendunen artean atzerriko biztanleriak zuen pisu erlatiboa zegokionaren erdia baino askoz ere txikiagoa zela, betiere Etxebideko eskatzaileen artean zuten biztanleria-pisuari zegokionaren aldean.
- ✓ Araban atzerriko biztanleriaren etxebizitza babestuaren eskariaren maila askoz handiagoa denez gero (**% 48**), Araban egin diren **esleipenen % 24** atzerriko pertsoneri zuzendu zaie.
- ✓ **Bizkaian eta Gipuzkoan**, atzerriko pertsoneri egindako esleipena txikia izan da, kolektibo horrek esparru geografiko bakoitzeko eskariaren barruan duen pisua baino askoz ere esleipen txikiagoa. **Bizkaian eskariaren % 23 dira eta etxebizitza babestuen % 2,6ren esleipendun izan dira; eta Gipuzkoan, eskariaren % 19 dira eta etxebizitza babestuen % 6ren esleipendun izan dira.**
- ✓ Etxebizitza babestua eskatzeko espedienteetan, atzerritar bat titular duten espedienteen **% 90ean alokairuko etxebizitza babestua eskatzen da**, eta % 10ek soilik eskatzen du erosketa-erregimeneko etxebizitza babestua. Alokairuko etxebizitzaren eskaria handia izanik ere, errentamendu-erregimeneko esleipena txikia da eta hori zuzenean dago lotuta errentamendu-erregimeneko etxebizitzaren eskaintzak dituen zailtasunekin. Izatez, askoz ere zailagoa da erregimen horrenpeko etxebizitza-eskaintza lortzea, eta askieza da gaur egungo ekonomia- eta finantza-krisialdi honetan.
- ✓ **Errentamendu-erregimenpeko etxebizitza babestua eskuratzeko zailtasunak** argitzen du, halaber, atzerritarrak zergatik izaten diren objektiboki adin handiagoarekin esleipendun. Atzerritar esleipendunen % 32 40 eta 49 urte artekoak dira, eta Espainiako nazionalitatea duten esleipendun gehienak 30 eta 34 urte arteko adin-tartean daude. Bi kolektiboetan batez besteko adina 41 urtekoa da.
- ✓ **Etxebizitza babestuaren eskatzaile den atzerriko biztanleriaren erdia (% 50) emakumezkoa da, eta esleipenen titularren kasuan % 45.** Atzerriko titular eskatzaileen batez besteko adina (39 urte) eta esleipendunena (41 urte) oso antzekoa da.
- ✓ Atzerriko pertsona eskatzaileen urteko batez besteko diru-sarrera 12.163 eurokoa da, atzerriko biztanleria esleipendunaren diru-sarreraren % 18 azpitik (14.902 euro batez beste).
- ✓ **Atzerritar eskatzaileen batez besteko sarrerak Espainiako nazionalitatea dutenen sarrerak baino nabarmen txikiagoak dira**, bai biztanleria eskatzailearen artean (batez beste 16.733 euroko sarrera Espainiako nazionalitatea dutenen artean eta batez beste 10.066 euroko sarrera atzerritarren artean), bai esleipendunen artean (urtean batez beste 19.477 euroko sarrera Espainiako nazionalitateko esleipendunen artean eta urtean batez beste 14.902 euroko sarrera atzerritarren artean).



7. taula Biztanle atzerritarren etxebizitza babestuaren eskariaren eta esleipenaren adierazle nagusiak, 2013

	Biztanleria eskatzailea *	Biztanleria esleipenduna
Atzerritarrak (kop.)	25.640	620
Biztanle atzerritarren %a, guztizkoari dagokionez	24,3	10,0
▪ Araba	47,8	24,0
▪ Bizkaia	22,6	2,6
▪ Gipuzkoa	18,7	6,4
Eskatutako etxebizitza mota		
▪ Alokairuko %a	90,05	82,70
▪ Erosketa-erregimeneko %a	9,95	17,30
Biztanleria titularraren sexua		
▪ Gizonak	50,1	55,4
▪ Emakumeak	49,9	44,6
Titularren batez besteko adina (urteak)	39 urte	41 urte
Batez besteko urteko diru-sarrerak *	12.163 euro	14.902 euro

* Batez besteko diru-sarreraren maila kalkulatzeko ez da kontuan hartzen diru-sarrerarik ez duen biztanleria.
Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzia.

4.2 Ondorioak

- ✓ Atzerriko biztanleriak Etxebiden erregistratutako eskariaren barruan duen biztanleria-pisua askoz txikiagoa da etxebizitza babestuaren esleipendunen artean duen pisua baino. Hortaz, datu enpirikoek aditzera ematen dute **ez dagoela kolektibo horrek duen etxebizitza-beharra estaltzea lehenetsiko duen inolako esleipen-sistematik.**
- ✓ Datu enpirikoek erakusten digute, halaber, **ez dagoela atzerriko pertsonen etxebizitza-beharra estaltzea kaltetzen duen esleipen-sistematik.** Praktikan, kolektibo horrek errentamendu-erregimeneko etxebizitza eskuratzearen alde adierazten duen lehentasun izugarriak (eskaeren % 90 da, kolektibo horren behar objektiboaren ondoriozkoa) mugatzen du, azken finean, benetako esleipen-maila; izatez, etxebizitza babestuen eskaintza globalaren barruan, alokairuko etxebizitzaren eskaintza askoz ere txikiagoa da (% 38 2013an).
- ✓ Atzerritarren esleipen-ratioen hobekuntza zuzenean dago lotuta, praktikan, Espainiako nazionalitatea duten alokairuko erregimeneko eskatzaileen esleipen-ratioen hobekuntzarekin, eta bi kasuetan, **nahitaez gehitu beharko da errentamendu-erregimeneko etxebizitza babestuen eskaintza.** 2010-2013 Etxebizitza Bideratzeko Planaren ardatz estrategikotzat jotzen da alokairuaren aldeko apustua, baina ez da arbitrarra gaur egungo egoera ekonomiko honetan. Edonola ere, badago ildo horretako datu itxaropentsu bat: alokairuko etxebizitza babestuaren eskaintzaren gorako bilakaera, nahi bezain beste ez izan arren. 2005ean etxebizitza babestuaren eskaintza globalaren % 14,7 zen, eta 2013an % 37,9 da.